



ASTIGARRAGA

Sagardoetxea Sagardoaren Museoa



Sagardoetxea

Sagardoetxea sagarra, sagarrondo eta sagardoaren kultura zabalteko museo gune bat da. Museoan kontzeptu tradizionalatik desberdina da, sagarrondoan bizitzeko aukera ematen duen leku dinamikoan baita, gauzak ikusiz, jardueretan parte hartuz eta produktu ezberdinak dastatuz.

Sagardoetxeak museoko sagastira eta museo-gunera bisitaldiak eskaintzen dizkio bisitariari. Museoan sagastian sagardo egiteko teknika eta sekretuak aurkituko dituzte eta sagarrondo, hazitegi, sagar mola desberdin eta aintzinako telare baten bueltan ibiliko dira. Museo-gunean, berriaz, sagarra eta sagardoaren historia, usadioaren iturburua, arramintak eta elaborazio prozesua aurkituko dituzte, sagardoaren kulturara gerturatuz.

Beste jarduerak

Astigarragak egun pasa osatzeko aukera ezberdinak eskaintzen ditu: pilotaleku estalia, igerilekua, aire librean bazkaltzeko guneak, Santia-gomendiko Natur Eskola, etb...



Kale Nagusia, 43
20115 ASTIGARRAGA
943 550 575
Faxa: 943 331 311
info@sagardoetxea.com
www.sagardoetxea.com



Material didaktikoa

Sagardoetxean ahalegin handia egin dugu sagarraren kulturaren gaineko material didaktikoa osatzeko:

- 1) Sagardoaren Hitzegia: sagardogintzaren inguruko 500 hitz biltzen ditu.
- 2) Sagarrekin Jolasean: sagarraren kulturaren inguruko hant liburuak dira, adin-tarte bakoitzera egokituak (bisi-ta burutu ostean talde bakoitzari banatuko zaio).
- 3) Murtia egiteko tresneria: bisitariak sagardoaren elaborazio prozesu osoan parte-hartzeko.
- 4) Lau modulutako laborategia: joko, puzzle, inudi, etb... en bidez urlaro bakoitzean jarduerak ezberdinak egiteko.

Jardueren egutegia

Urte osoan zehar:

- Dasti ipuinak: haurrentzako ipuin moduko bisita gidatua.

Neguan: landaketa garaia

- Arbolak aldatu / hazien eraketa.
- Sagarrondoaren formazioa.
- Txertaketak.

Udaberrian: sagastia loretan

- Polinizazioa: erleen lana, ezli dastaketa eta lorelik fruiturako prozesu guztia ikusteko aukera.
- Sagarrondoaren izurrite eta gaitzak.

Udaran: sagarrak zuhaitzetan

- Inausketa: ilargiaren eragina udarako inausketan.
- Aisialdi taldeentzako jarduerak bereziak: sagarrarekin, sagardogintzarekin eta ingurugiroarekin loturiko jolasak, elkarrizketa eta ingurugiro haziketa lantzeko.

Udazkenean: sagarren bilketa

- Sagarra heldua dagoenean bildu, sagar ezberdinen dastaketa eta aintzinako elaborazio prozesua: sagarra pisoeikin jo, zompato eta loturiko murtia dastatu.

